

GAËTAN, G. (2012)

Coaching escolar para aumentar el potencial de alumnos con dificultades. Madril: Narcea

«Coaching» kontzeptua gure artean dabilen urte asko ez dira eta maileguzko hitzak ez du oraindik lortu geurean erabat bertakotzea. *Optimizazio diziplina* gisa uler dezakegun fenomeno honi ekiten dio liburuak baina, urte apur hauetan espezializazio eta bereizketak eman direnez (behar bada eza-gunena kirol mundukoa da baina baita garapen «coaching»-a, estrategikoa, antolakuntzarena...), hezkuntza eremuan kokatzen den «coaching» mota bati zuzendua dago honako liburua, «coaching» eskolarrari hain zuzen.

Liburuaren egitura sinplea (eta praktikoa) da: honen nondik norakoa zehazten duen hitzaurrearen atzetik lehenengo atalak «coaching» fenomenoari heltzen dio bere historia jorratuz, ezaugarri, zehaztasun eta motak deskribatuz, motibazioari heltzeko gero. Bigarren atala liburuaren muina da: eskola testuinguruan kokatuz «coaching» fenomenoaren eta alderdi orokorrez gain, definizio proposamen bat, parte hartzeko eredu bat eta aplikazio saioen egitura planteatzen ditu hurrenez hurren.

Hirugarren atalak hurrengo atalerako zubiarena egiten du eta funtsean laburpen modukoa da, ondorio batzuk ateratzeko asmoz eta ekintzetara pasa aurretik zenbait gogoeta planteatuz, laugarrena horixe baita: eskolan «coaching»-a aplikatzeko materialak eta pausuak zehazten duena; izan ere, materialen aurkezpenaren ostean hamaika fitxa eskaintzen dira lau multzotan banatuta: A multzoan abiapuntu-egoera eta hasierako ebaluazioa (1-2-3 fitxak); B multzoan egoeraren azterketa eta konpromezuak (4-5-6 fitxak); Eboluzio eta garapena (7-8-9 fitxak) eta D multzoan jarraipena (10-11 fitxak). Glosarioa eta bibliografiarekin osatzen da liburu

xume hau (134 or.) eta esan dezakegu funtsean «coaching»-a eskola tes-
tuinguruan, gazte eta nerabeekin aplikatzeko eredu bat eskaintzen duela
deskribapen zehatz eta sekuentziazioa zainduz.

Irakasle, tutore edota orientatzaileek hemen aurki ditzakete «coach»-a
egiteko oinarriak, ikasleei lagundu euren ahalmenak aurkitzen, garatzen eta
eguneroko lanean aplikatzeko plan bat diseinatzeko, beti ere alderdi akade-
mikoaren hobekuntza, testuinguru eskolarrari egokitzapena eta garapen
pertsonala bilatuz. Hori bai, alde praktikoari soilik begira ez da diseinatua
izan, puri-purian dauden galderak ere planteatzen ditu (adibidez: eskola
derrigorrezkoa izanda, «coaching»-a borondatezko ala derrigorrezkoa?) eta
dauden joerak aipatzeaz gain, egileak bere ikuspuntua ere ausarki jartzen
du agerian.

Fitzez gain, grafikoak eta eskemak erruz agertzen dira eta argiro azal-
tzen dira ideiak, konzeptuak eta aplikapenerako eman beharreko pausuak.
Liburu samurra, atsegina eta praktikotasunari begira egina dagoen hau
«Narcea» argitaletxeak duen «Educación hoy» bilduman kokatzen da, ikas-
-irakats prozesuetan murgilduta dabilenari ikasleak (batez ere zailtasunak
dituzten ikasleak) lagutzeko helburuarekin pisuzko galderak eta jarduteko
aukerak eskaintzen dizkio.

J.M. Lopez de Heredia

HOLZSCHUHER, C. (2012)

*Cómo organizar aulas inclusivas. Propuestas y estrategias para aco-
ger las diferencias.* Madril: Narcea

Argitaletxe honek liburu eta eskuliburu praktikoak aurkezteko ohitura
du eta oraingo honetan aurkezten den liburua helburu horrekin idatzita
dago. Cynthia HOLZSCHUHER idazleak, haur literatura eta hezkuntza
material ugari argitara eman du, horien artean gazteleraz aurkezten den
liburu hau. Inklusioa du aztergai eta dudarik gabe gaur egun gure eskoletan
aurkitzen dugun erronka sakonetariko bat.

Liburuaren egitura, sarrera eta lehenengo kapituluarekin hasten da.
Bertan inklusioa nola inplementatu daitekeen erantzuten saiatzen da, maiz
eskoletan egiten diren galderei lotuta. Lehenengo kapituluan, «haurrak in-
klusiorako prestatu» izenburupean, harrentzako jai bat antolatzeke, ikasge-
la apaintzeko eta jarduera bat egiteko ideiak aurkezten ditu.

Jarraian, hirugarrenetik bederatzigarren kapitulura, sarritan eskola
integrazioetan eman daitezkeen egoerei erantzuteko asmoarekin hainbat
urritasun eta nahaste aurkezten ditu (portaera arazoak, urritasun fisiko eta
sentsorialak eta abar). Baina urritasun edo nahastearen azaleko aurkezpen

bat izango da eta aurrerago, lauzpabost ideia solte eskaintzen ditu. Kapitulu hauen artean ideei nahastu dezente eta testuinguruz kanpo dauden beste batzuk ere azaltzen dira.

Liburua bukatzeko, azken bost kapituluetan, arlo praktikoari heltzen saiatzen da. Kapitulu hauetan lan-giro egokia, egokitzapen curricularrak, estrategia metodologikoak eta ikasleen ebaluaketa eta jarraipena laburki ere aipatzen ditu.

Liburua eta bere kapituluaren baloraziori dagokionez orokorrean esan dezakegu, gure iritziz, edukia izenburutik oso urrun dagoela. Liburuan inklusioari heltzeko neurri batzuk aurkezten ditu, hala nola kezkak saihestu, 1:6 eta 1:12ko ikasle ratioa edo bi irakasle gelako. Ideia onak badira ere gure hezkuntza sistematik urrun daude eta neurri horiek dakarten antolakuntza aldaketa zein metodologikoak ez dira azaltzen. Idazleak aurkezten dituen neurrien artean egokitzapen curricularra dago, liburu osoan pixka bat gehiago luzatzen duen neurria da, baina, aurreko neurrietan bezala azaletik eta eskola eta bere curriculumetik oso urrun.

Urritasunak edo nahastei eman behar zaien erantzuna aurkezten denean ere azaletik eta modu inuzentean egiten du. Orokorrean liburu osoan azaltzen diren neurriak ikaslearen ikuspuntutik pentsatuta daude. Kasu batzuetan gelako ikuspuntutik baina kasu guztietan neurri edota ideia horiek aurrera eramateko behar diren jarraibideak behar bezala aipatu gabe.

Ideiak egokiak izan daitezke, baina kasu guztietan azaletik ematen dira. Inklusioa eta bere garapen eskolarra oso gai konplexua da. Ideia horiek oso ezagunak dira eskoletan, eta dagoeneko askoz ere aurrerago gabiltzala esan dezakegu.

Eskola inklusiboaren arazoa ez da ideien edo errezeten falta, baizik eta gure eskolak gaur egun dauzkan kontraesanei aurre egiteko behar den adostasun prozesuaren garapena, arlo ideologikoan eskolaren eraldaketa eta, horren ondorioz, hedatu behar diren neurriak eskola-antolakuntza alde-tik eta arlo praktiko-metodologikoan.

Javier Monzon

RECHOU ROG, B; SOTO LÓPEZ, M eta NEIRA RODRÍGUEZ, N.
(koord.) (2012)

A narrativa xuvenil a debate (2000-2011). Vigo: Xerais, LIJMI-USC

Santiago Unibertsitatean kokaturik dagoen LIJMI ikerketa taldearen monografiko berri honetan Gazte Literatura aztertzen da, eta aurreko monografikoetan bezala liburu honek egitura zehatza du: azterketa teoriko

batzuk Gazte Literaturari buruz, liburuen hautaketa bat iberiar penintsulako bost hizkuntzak eta Hego Amerikako hainbat herrialdetako literaturak kontuak izanik, eta azkenik herrialde eta hizkuntza horietako argitaraturiko zenbait libururen azterketa.

Aipaturiko lehen atalean bi artikulua aurki ditzakegu, Maria Madalena Marcos Carlos Teixeira da Silva Azoresetako Unibertsitateko irakasleak Gazte Literatura terminoaz, berau definitzeko zailtasunez, korronteei buruz... ari zaigu. Alegia, generoa berari buruzko gogoetak eta ikerlari ezberdinen ekarpenak. Gazte Literaturaz ari garenean helduen literaturarekin mugan ari den generoaz ari baikara, sarritan gazteei mezuak helarazteko, gogoetak eragiteko, literaturaz, irakurlearen identifikazioa bilatzen duen produktuaz ari gara.

Ondorengo artikuluan, aldiz, Valentziako Unibertsitatean ari den Gemma Lluch irakasleak «La narrativa para los adolescentes del siglo XXI» lanean teknologia berrien eragina eta mende berri honetan argitaratzen den literatura aztertzen ditu.

«Unha selección para a educación literaria» gainera komentatzen diren liburuen ondoren, argitalpen honen elementurik garrantzitsuen eta sendoa dugu, 5. kapitulua: «Comentarios para a formación lectora», bertan 22 obra aztertzen dira (penintsula iberikoan argitaraturiko 15, hego Amerikako 6 eta beste hizkuntza batean, ingelesez, plazaraturiko obra bat). Hogeita bi idazlan horiek kultura ezberdinetako ikuspegi zabala eskaintzeaz gain, egungo Gazte Literatura hobeto ezagutzeko tresna paregabea osatzen dute, bai eta arlo honetako literatura kritikan sakontzen laguntzeko.

Euskal obrei dagokienez hiru artikulutan lau obra aztertzen dira: Marijasun Landaren *Galtzerdi suizida* eta *Krokodiloa ohe azpian* (Marijo Olaziregik komentatuak), Karlos Linazasorearen *Bestiarioa. Hilerrikoiak* (Manu Lopezek aztertuta) eta Ramon Saizarbitoriaren *Kandiskyren tradizioa* (Mikel Ayerbek egina). Eta, hain zuzen, hiru obra horiek islatzen dute, neurri batean XXI. mende honetan euskal Gazte Literaturan jazotakoa. Tematika berezia eta gogoeta bultzatzen duten obrak; helduen eta gazteen munduen arteko mugan daudenak, eta helduen literaturako idazleak erakarri dituztenak.

Liburua osatzen duten 363 orrietan Gazte Literaturan sakontzeko aukera eskaintzen zaio irakurle eta ikertzaileari, honelako lanek pistak emateaz gain jakintza arloan gehiago sakontzeko beharra eta interesa ere pizten baitituzte. Gainera, hizkuntza aldetik ere, liburuak apustu argia egiten du hizkuntz aberastasun eta ugaritasunaren alde, eta bertako lanen artean, 24 artikulua (gehi aukeratutako liburuen komentarioak), gehienak idazlearen jatorrizko hizkuntzan argitaratuak daude —euskarazko lanetan gaztelera-ko bertsioarekin batera—. Horrela, galegoz, katalanez, gaztelera, portu-

gesez eta euskaraz eginiko komentarioak aurki daitezke Gazte Literatura hobeto ezagutzen lagunduko digun obra honetan. Literaturara, ez ezik, generoa ere gure didaktiketan egokitzeko aukera eskaintzen du liburu honek. EHUK genero indarkeria ekiditeko martxan jarri berri duen Protokoloa bultzatzeko lagungarri izan daitezkeen bi liburu aipatuz bukatuko dugu. Marilar Aleixandreren *A cabeza de Medusa* eta M de Lolita Boschen *Literatura per sobreviure al maltractament*, biak aztertzen dira monografikoan, biak dira egokiak genero indarkeriaz gure ikasleekin aritzeko, biak interesgarriak gure klaseetan literatura genero ikuspegitik jorrazteko.

Gema Lasarte Leonet

FORÉS, A. eta GRANÉ, J. (edit.k) (2012)

La resiliencia en entornos socioeducativos. Madril: Narcea

Konzeptu hau —«resiliencia»— gorabidean dagoen terminoa da (euskaraz oraindik ez da finkatu hitz baliokiderik) eta eremu askotarikoan erabiltzen bada ere, izenburuak finkatzen duen testuinguruan mugitzen direntzako oso liburu gomendagarria da honako hau. «Resiliencia» terminoa oraindik urrun kokatzen badugu, zoriontasuna irudikatu dezakegu, azken funtsean, zorion izateko bidea da «erresilientziarena». Edozein modutan, kontzeptu argitzea da liburuaren lehenengo helburua, adituen eremutik haratago joan delako eta hezkuntza eremura zein gizarte osora hedatu baita. Maila pertsonalean zein taldeka, ezagutu eta bultzatu behar diren gizakion posibilitateen metafora da kontzeptu hau eta gaurkotasanari buruz, zer esan! gaur egungo krisi garai honetan,

Liburuaren sarreran —Esperantzaren hiztegiak. Posibilitateen garapena— kontzeptuan murgildu egiten da azpiatal esanguratsuen bitartez: «Ezagutzen ez duzuna ezin da amestu; “Erresilientzia” abiapuntua, ez helmuga; “Resiliarse” orainaldian konjugatzen da; “Erresilientzia” talde-lana da;...». Horren segidan lehenengo atalean kontzeptua argitzea da bilatzen dena baita hezkuntza testuinguruan kokatu ere; kontzeptuaren jatorria argitu, horren inguruko ikerketa eskolak (anglosaxoia, europarra, latinoamerikarra) eta kontzeptuaren perspektiba holistikoa.

Hurrengo hiru ataletan garrantzia handiko hiru faktore jorrazten dira: gauzen zentzua sortzea da lehendabizikoa, existentziari berari zentzua ematea, azken finean; bigarrena umoreari buruzkoa da, erresilientziarako osagai gakoa dena (honen onurak, honen inguruko lan-ikerketak, osasun mentalaren inguruko eraginak, aplikazio eremuak, esku hartzeko estrategiak...); hirugarrena barkamenari zuzenduta dago (ikerketen berri, alderdi kontzeptualak, barkamenaren onurak, barkatzen aritzeko proposamen praktikoa...).

Beste hiru atal ditu liburuak: Begirada aldaketaren beharra planteatzen du lehendabizikoak, gure begiratzeko erak baldintzatzen du gure bizitza eta aldaketarako jarrera egokia aldarrikatzen da «begirada berri» horrekin, bukaeran zazpi proposamenen berri emanez. Bigarrenak unibertsitatean kokatzen du erresilientzia, ikuspegi honetatik dituen erronken berri emanez eta posibilitateen erreposoa eginez. Azken atalak izenburu bitxia du —«Vi(vi)endo la resiliencia»—, ikus eta bizi aditz (ezin adierazgarri)ekin osatua eta irudiaren garrantzia jorratzen du bertan, batez ere zinema munduan sartuz, zenbait pelikula erresilientzia lantzeko baliabide gisa planteatuz

Anna Forés eta Jordi Grané dira liburuaren editoreak eta euren ekarpena egiten dute, baina liburuan parte hartzen dutenen zerrenda luzea da zinez: Marta Burguet, Jesús Damián Fernández Solís, M.^a Dolores García Hernández, Gloria Gil Hernández, Eduardo Jauregui, Carmen Maganto, Juana M.^a Maganto, Roberto Orbea, Gema Puig, José Luis Rubio eta Ángela Torbay. Ekarpenean anitzetako argitarapen hauetan desorekaren arriskua egoten bada ere, oraingo honetan txalotzekoa da liburuak lortzen duen egitura sendo eta egokia. Horrela liburu argia eta atsegina dugu, gertuko eta ulerkor eran idatzia: adibideak, gogoetarako galderak, inplikaziozko proposamenak... aurkituko ditu irakurleak baita izenburuen azpian autore batzuen aipu esanguratsuak ere: «Bizitzeko zergatia duenak ia edozein “nola” jasan dezake», Nietzsche; «Umorerik gabeko pertsona indargetzailerik gabeko gurdia bezalakoa da: bideko harri guztiek astintzen dute», Henry Ward Beecher; eta abar.

J. M.^a Montero

DEL POZO FLÓREZ, J. A. (2012)

Competencias profesionales. Herramientas de evaluación: el portafolios, la rúbrica y las pruebas situacionales. Madril: Narcea.

Ezer baino lehen, liburuari eskertu behar zaio hain izenburu deskriptibo eta esanguratsua, izan ere, horixe baita da barruko orriotan garatzen duena. Eta argia, atsegina, didaktikoa (egitura, grafikoak, irudiak, adibideak...) eta arina ere (ez da 140 orritara iristen) badela esan daiteke esfortzu handirik gabe. Lan kompetentzien garrantzia azpimarratzen hasten da baita garbi utzi bere helburua zein den: ikas-erakundeen lan egiten duten profesionalen lan kompetentziak ebaluatzeko teknika eta baliabide multzo bat erakustea hain zuzen.

Pertsonok alde positiboez eta ahulgunez, lorpen eta zailtasunez jabe izatea funtsezkoa da bizitzan zehar ikasten jarraitzeko; ikaste-prozesuaren ardua norberarena izan behar da, beste edozeren gaintik eta prozesu honetan ebaluazioa kilikagarria izateaz gain, hurrengo urratsetarako ere bultzatzailea izan behar da.

Hori dela eta, bost ataletan dago egituratuta liburua: lehenbizikoa lan kompetentziak zer diren eta nola ebaluatzen diren zehaztera zuzenduta dago. Abiapuntutzat hartzen da kompetentziak soilik egoera errealetan eta kinka zehaztetan sorturiko emaitzetan direla behagarriak eta hiru baliabide egoki direla hauek ebaluatzeko, hain zuzen, azpitu-tuluan agerian utzi eta hurrengo hiru ataletan garatzen dituenak.

Hori-atariko lehenengoari buruz ari da bigarren atala: kompetentzien karpeta edo portfolioa. Zer den, zertarako balio, zeintzuk osagai ditu, zeinei dagokio egitea, zenbat mota dagoen eta, atalari bukaera emanez zatirik luzeenean, kompetentzien karpeta baten diseinua jorratzen du, taula dife-renteekin —adibide gisa— hornituz.

Hurrengo atala errubrikari buruzkoa da. Motak, nola diseinatu eta aplikatu eta -berriro zatirik luzeena praktikotasunari zuzendua- bost eredu eskainiz (autoebaluaketarako, egunerokorako, ahozko aurkezpenarako, lan idatzietarako eta taldekide batek talde lanean egiten duen ekarpenarako) egituratuta dago hirugarren atala.

Lan kompetentziak ebaluatzeko egoerako frogak planteatzen ditu lauga-rrenean eta berriro hemen motak, nola egituratu halakoren bat eta eredu bat eskainiz osatuta dago, azken honetan sakonduz definituta dagoen drama tailerraren bitartez.

Azken atala kasu praktikoko bati zuzenduta dago: «jarduerak naturan» izenekoa Goi Zikloko Gizarte- eta Kultur-Animazioa lanbide heziketarako modulu bati dagokiona. Testuingurua argitze aldera, lehendabizi konpe-tentzien osagai nagusiak azaleratzen dira, ikasketa emaitzak eta edukiak zehazten dira gero eta bukatu egiten da —ikasleei aurkezten zaien beza-la— gai tematiko zehatz horrekin, eginbeharrekoak banan-banan zehaztuz.

Glosarioa eta bibliografiarekin bukatzen da liburu samur hau, planteamendu teoriko sakonak baino erabilgarritasunari bideratua, gaurkotasun handiko lan kompetentziak ebaluatzeko hiru teknika aurkezten dituen modu ulergarrian. Testuinguru honetan agerian utzi behar da bere ekarpena baina bere muga ere.

K. Burgoa

BATLLORI, J. (2012)

Juegos que agudizan el ingenio. III Enigmas sorprendentes y muy divertidos. Madril: Narcea.

Liburu arina borobila den egian oinarrituta: jolasa da tresna eraginko-rrenetarikoa ikasteko. Jolasak berezkoa badu laketa, zergatik ez aprobetxa-

tu berau ikasteko? Oinarri honetatik abiatuta dator liburua eta 12-13 urtetik aurrerakoentzat planteatuta dago 111 jolas ezberdinekin. Hauek egitura berdintsua dute: azalpen txiki bat, nola dagoen formulatuta eta behin erronka ondo ulertuta, konpontzeko behar den materiala, bere zailtasun maila, lor daitezkeen helburuak, «pista»ren bat edo beste, soluzioa, ahalezko aldaerak, jolasaren gakoa eta zenbaitetan jolas horrekin erlazionaturik dagoen bitxikeria.

Jolas guztiak sei multzotan daude banatuta: lehendabizikoan azaltzen dira matematika eta zenbakizko adimenaren ingurukoak (guztira 20); bigarreanean logika, arrazoiketa eta buruko bizkortasunaren ingurukoak (guztira 20); hirugarren multzoan ditugu estrategia eta egonariaren ingurukoak (guztira 15); hurrengo multzoan (beste 15 jolas) memoria eta behaketaren ingurukoak daude; bosgarrenean ahozko adimen eta arrazoiketa zein komunikaziozkoak (guztira 20); eta azkena den seigarrenean buruko jolasak eta enigmak (guztira 21, batuketak adierazgarri den 111 hori eman dezan).

Adibide pare bat:

- 5 litroko pitxarra, 3 litroko beste bat eta nahi beste ur. Nola egingo zenuke zehazki litro bat neurtzeko?
- Pertsona itsu, gor eta mutu bati: zenbat zentzumen gelditzen zaizkio? Zeintzuk?

(Berehalakotasunean asko ez da ohartzen galdutako zentzumenak ikusmena eta entzumena baino ez direla)

Zer esanik ez dago oso erakargarria egiten dela halako liburua esku artean izatea (formatua, diseinua, argitasuna, grafikoak, irudiak...) eta behin gainbegiratua botaz gero, gutxik uko egingo dio halako jolasa/erronka egi-teari. Hori bai, eskola testuinguruan aplikatu eta nola, noiz eta gainerakoak norberak erabaki beharrekoak dira, jakina.

J. M. Osinaga

Jasotako liburuak

RODRÍGUEZ, G. eta IBARRA, M. (arg.) (2011)

e-Evaluación orientada al 2-Aprendizaje estratégico. Madril: Narcea